



Trapagaran

Udala
Ayuntamiento

Tokiko Merkataritza Saila
Área de Comercio Local



OINARRIAK:

Udaleko Merkataritza Sailak eta “Baturik”-ek, Trapagarango Merkatarari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak antolatuta

Helburu hauek ditu:

Erosketak sustatzea herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorean, oso eragin larriak nozitu baitituzte, Covid-19ak sortutako osasun alerta dela eta.

Herritarrei %50eko aurrezkoa eskaintzea bere erosketetan.

Bonuaren edizio honen bidez, udazken honetan, 50.000 euro jarriko dira zirkulazioan Trapagarango ekonomian.

HAUXE JAKIN BEHAR DUZU

“Trapagaran zaindu” bonoa erabili, %50 AURREZTUKO duzu ZURE EROSKETETAN

- Bonu bakoitzaren prezioa 15 eurokoa izango da, baina eramaileari 30 euroko balioa emango dio kanpaina honetara atxikitako Valle de Trápaga-Trapagarango saltokietan kontsumitzeko. (Baturikekoak direnetan eta ez direnetan)
- Bonu hau 15 euroko bi zatikitan zatituta egongo da. Zatiki bakoitza saltoki desberdinetan erabili beharko duzu.
- Bonuak metatu ditzakezu zenbateko handiagoko erosketetan erabiltzeko, baina gehienez 2 zatiki edo 30 € .
- 15 euroko zatiki bakoitza saltoki edo erosketa bakar batean erabili beharko duzu.
- Bonuak ez dira esku-diruagatik trukatu eta inola ere ez da itzuliko haien zenbatekoa.
- “Trapagaran zaindu” bonua www.trapagaranbizi.com webgunearen bidez baino ezin izango da eskuratu, 2020ko urriaren 14tik 18ra edo izakinak agortu arte.
- Bonuak eskuratu ahal izateko adinez nagusia izan beharko zara. NAN bakoitzeko, gehienez, bi bonu eskuratu ahal izango dituzu.
- “Trapagaran zaindu” bonuak 2020 urriaren 27tik azaroaren 22ra, biak barne, erabili ahal izango dira kanpainara atxikitako saltokietan (zabalik baldin badaude).
- Kanpaina amaitzear dagoela atxikitako establezimenduetarako erosi diren bonuak edo zatikiak ezin badira erabili establezimendu horiek oraindik ez daudelako zabalik, irekita daudenen artean beste establezimendu batzuk hautatu beharko dira erabili ahal izateko, bonuen kostua ez delako itzuliko.
- Ez da egingo ez aldaketarik ez itzulketarik eta bonu edo zatikiak ez dira erabiliko hautatu ez diren saltokietan.
- Zatikia inprimatuta eraman beharko da erabili nahi den saltokira.
- Zuzen idatzi zure helbide elektronikoa, bonua jaso nahi baduzu. Egun batzuk igarota bidaliko dizugu bonua, ematen diguzun helbide elektronikora.